


BI IPUIN LABUR

XABIER GALARRETA



© Marjinalia Bilduma
© Xabier Galarreta
Lege-Gordailua: SS-38/02

SADE, SANTU BATEN ERROMESALDIA PARISEN ZEHAR¹

Edota munduan zehar. Nork jakin, Parisen bukatzen ez ote den mundua. Ni, dena den, ez naiz *ciceronea*. Ez naiz galtzen Parisen, baina ez dakit Parisi buruz hitz egiten. François de Sade nauzue. Barka, beharbada, hasieratik bertatik esan beharko nizuekeen nor naizen... Ziega beldurgarrian igarotako urteek heziketa ona hondatzen diote edozeini. Orain, berriz, aske nabil Parisko kaleetan zehar. Metroz, *testa rossaz*, euskaldun batek gidatzen duen taxian, edota duela ez hainbeste urte kalea egiten zuen neska euskaldun baten besoetan... Iparraldekoa zela esan zidan, baina nik ez nion ondoegi ulertu... Ez zait inoiz politika gehitxo interesatu (sadikoa naiz, eta ez masokista —maoista izatea hori bai txarra—).

Begira, adokin baten historia gauza miresgarria da niretzat. Baina niri ez galdetu ezer eraikin bati buruz; niri ez esan non, Parisko zein zubitan pintatzen diren koadrorik ederrenak. Jardin des Tuileries, Eiffel dorrea, Bois de Boulogne, Auzo Latindarra edota Georges Pompidou... zaborra dira niretzat. Niri inporta zaidan Paris-ak zigor bat dauka gordeta... bere ilusioetan —nireak

¹ Ipuin hau Euskaldunon Egunkarian argitaratu zuten 2001eko udan.

diren ilusio horietan—. Paris... Barka, baina gida turistikoa ahaztu zait etxean. Nik neuk ere etxe bat izan bainuen garai batean Parisen, duela hirurogei, berrehun urte akaso... Zeinen erraz ahazten zaigun genekien matematika apurra. Parisko kale karratu, geometriko hauetan zehar, den-dena da hain erraza, atzera begiratzea esan nahi dut... Paris, otoitz baten modura ahoskatzen dudan hitza... Eta maitasuna — nire erara ulertuta, noski...

Preso egon nintzen, La Bastiden; gero, erotzat hartu ninduten, hortxe, Charentongo ospitale psikiatrikoan atxiloturik igaro nituen neure bizitzako azken urteak, edo egunak, edo orduak... Ez dakit. Hiltzen zarenean, denbora ez da lehen bezala ulertzen... A, eta ezagutzen al duzue Saint-Suplice eliza polita...? Ez...? Ba han bertan bataiatu ninduten. Eta Konde kalean jaioa nauzue. Oraindik bada guztiori. Zuek nola diozue...? Izena duen guztia badela, ezta? Bada horixe bera neurekin ere, neuri dagozkidan gauza guztiekin ere.

Gehiegikeria asko kontatu dira nitaz. Ez sinestu ezta erdia ere. Nik diotsuet, François de Sade den honek; ber-berberak (berebere ez, aizu...). Edonola ere, gauza polit asko ditut oroimenean; gaztaroa, krimena, berdetasuna, gehiegikeriak, lagunarte gaiztoa... Bizitzan merezi duten gauzak alegia. Gainerantzekoa, belaunik bititza bezala, benetan.

Inork ezin nau ikusi. Esaterako, hor, Sacré-Coeur basilikan argazkiak ateratzen diharduen turista-taldeak ezin nau ikusi. Nik haiek bai, ordea... Ai!

.....

.....

Barka, kontakizunaren haria galdu dut. Baina ez da nire errua izan; zartailuarena baizik. Bai, zartailu bat dago istorio honen erdian. Noiz helduko den sekula ez dakidan zartailu beldurgarri bat. Ez daukat, ordea, haragirik, ez naiz haragiherezko gizakia. Nire gorputza sentitzeko gauza banaiz ere, ezin dut ukitu; inork ezin nau ikusi. Hil eta gero geratzen den gauza bakarra, hala ere, bihotza da. Ikusten ez den bihotz bat, gorria (ohi diren bezala), taupaka behin eta berriro, aspergarriro... Bizitzan izan ditugun sentipen guztiak altzairuzko kutxa batean bezain fierki gordetzen dituen; bihotz bat, geroago gu epaitzeko balioko duena, gure salbaziorako edo... gure galmenerako. Ez dago erdiko biderik (purgatorioa eta hori dena ipuin hutsa baita, kanailen desesperazioak sortutako asmakeria). Beraz, nioenez, zartailuak bere kolpea ematen duenean, zuzen-zuzenean doa nire bihotzaren bila, nire bihotza baita bere zartadaren helburua. Eta orduan, bihotza bitan nola irekitzen zaidan senti dezaket... Ez dakit, ba, nola azaldu... zuek kutxiloa haragian sartuz gero sentituko zenuketen horixe, haragia zabaltzen, urratzen denean... Eta orduan, humanitateari mende luzeetan pilatu zaion mina hortxe neure bihotzean pilaturik sentitzeko gauza naiz; eta mina hain da ikaragarria ezen benetan txoratu egiten naizen, eta belauniko erortzen naiz lurrera tximistak jota bezala —baina ez otoitzeko, baizik madarikatzeko—. Gero, pasatzen da eta

poliki-poliki arnasa berreskuratzen dut. Holaxe izan da azken hirurehun, berrehun urteetan (hil nintzenetik alegia). Eta ezin izan naiz ohitu (gizakia ohitura-objektua izango baita, bai, baina hildakook beste enbor baten ezpalekoak gara...).

Zertaz ari ginen? A, bai. Zuek Paris ikusi nahi duzue, ezta? François de Saderen Paris-a. Begira, arloteak milaka bizi dira hiri polit honetan. Nire garaietan ere halaxe zen; orain, ordea, arloterik gehienak kanpotik helduak dira: afrikarrak, hispanoak, poloniarak, ekialdetarrak... Betiko mina bizi dute horiek. Ez dakite, baina eurak ere *Justine* dira. Ez dakite, baina eurak ere boteretsuen jolas-panpinak dira. Ez dakite, baina eurak ere euren banitate eta diru zalekeria nazkagarriaren esklabu erotizatuak dira (paristar, europar guztiak bezala). Eta zuk, berariaz, ba al dakizu zuk nor zaren? Ikusi nahi al duzu nire Paris? Atea zabalik duzu. Utzi zure euskalduntasuna paragueroan, mesedez, eta sar zaitez beldurrik gabe. Erakutsiko dizugu, guk, frantsesok, zer den *la civilisation française*. Hori da, bai, jaitsi bragak; edo galtzontziloak (berdin dio, benetan). Bai, badakit putaseme bat naizela, baina... ez ahaztu François de Sade naizela. Zer espero zenuten bada? Historiaren biktima gizarajo horietako batekin topo egitea...? hil eta gero, ohorea berreskuratzea nahian dabiltzan espektro hiper patetiko horietariko bat aurkitzea espero ote zenuten?

Begira, Boulogneko basoko lakuan beltzarga zorritsuak ari dira igerian. Eta hor, apur bat aurrerago, gauez, baso ondoko errepedean,

emagaldtu arkakusoz josiak ari dira lanean. Beltxargak ere ez daude gaizki, ipurditzulotik ematea zaila bada ere... Perseberantzia kontua izango da, mundu honetan gauzarik gehienekin bezala. Damututa nago, bai (hilda egoteaz batez ere; apur bat kabroitxoagoa izan ez izanaz, aukera nuenean; ustekabeen eternitate osorako jasatea egokitu zaizkidan zartada horietaz...). Dena den, gizon santua —eta saiatua— naiz. Benetan. Hain santua, ezen, Jainkoak berak sinesten baitu nigan, baita estatuak ere, eta mafiak, eta poliziek, bizitza honetan merezi duten gauzek alegia... Ai!

.....

.....

A, beste zartada ikaragarri horietariko bat. Ez al da inoiz bukatu behar ala? Eternitate nardagarria... Ondo izorratuta nago, bai...

Barka, oraindik ez dizuet Paris zeharo erakutsi. Begira, ospitale horretan —ez dut gogoratzen bere izena— poeta asko hil ziren. Denak gosez. Eta banitatez. Izorra daitezela! Eta zubi horretatik ez dakizue zenbat bota dituzten beren buruak Sienara. Ni noizean behin hona etortzen naiz suizida bat edo beste lanean ikustera. Ikuskizun polita da, zinez. Eta liburu zaharren azoka momifikatuen artean oraindik ere aurki ditzaket nire nobelatxoak. Begira, hor eskultura eta guzti altxatu zidaten. Beste infernu bat... Itxaron, telefono-dei bat egin behar dut. *Bai, Kultur Sailarekin, mesedez... Sade naiz, François de Sade. Ez, ez da txantxarik.* Joder, moztu egin dute. Beti gertatzen zait gauza bera. Horrela oso zaila da

dirulaguntzarik lortzea. Zeren hilda ere, oraindik gauza garrantzitsuak ditut-eta publiko odolez egarriari jakinarazteko... E, nora zoaz? Ez atera korrika! Ez dizut ezer egingo eta. Ai!!

.....

.....

Goroto diat jaizkozko zartailu madarikatu hau!

Ziur al zaudete ez duzuela Paris nirekin ezagutu nahi? Beno, ba, orduan, jarrai ezazue ugaltzen. Ea Euskal Herriaren alde zerbait onik egiten duzuen, joder...

À tout à l'heure!

Ai!!

.....

.....

Bzxjkwtppskrtrt!!!

AMEBA KOSMIKOA

Ameba txiki-txikia zen, eta bonatxoak bezalako puntu gorriskak zituen gorputz osoan sakabanaturik, erritmikoki altxatu eta jaisten zirenak, arnas-moduko zerbaiti-edo jarraiki.

Ameba (bat) zen; edo nintzen... Egiatan, ameba itsusi hura uste dut neu nintzela. Gustatu ala ez. Espazioa zeharkatzen ari nintzen auskalo norantz. Patuak —patu misterioitsuak— nigandik tiraka ziharduen aspalditik. Hil nintzenetik, hain zuzen. Gero, orain dakusazuen amebatxo itsusi bilakatu nintzen, nire gogoz kontra izanik ere (hemen inork ez dizu baimenik eskatzen: ez pertsonairik ederrena izateko ez unibertsoko amebarik itsusia bilakatzeko, ezta bizitzeko edota hiltzeko ere). Unibertsoa zen, behintzat —zinez espero ohi dugun bezala—. Jukutria ederra! Eroetxe espazial batean irudikatzerik ez dagoen beirazko une apurtua, lapurtua, gogoratua. Ni —bera alegia— amets bat nintzen. «Biak bat», ezer hobeagoren beharrean... Horrez gain, ahorik ere banuen, buruorratz baten punta bezain mehar... eta zorrotza, unibertsoaz gaizki esaka aritzeko baliatzen nuena. Edota hitz gorriak jaurkitzeko. Horrek inpotentzia arintzen baitzidan «pilo bat» (gaurko gazteen hizketamoduan). Ameba fenalikoaren nintzen, falokapozeaden-motakoa (horiek dira okerrenak, txisturik gehien botatzen dituztelako eta oso-oso erotikoak suertatzen direlako). Uf, zeinen

esker txarrekoa den gure gauza guztien Eragilea. Pito-erdia ere ez diogu ajola eta. Guk inurriak zapaltzen ditugun moduan... Ezer ez, alegia. Tren-geltoki erraldoi batean galduta, erabat bakarrik, egotea da unibertsoan zehar bidaiatzea. Eta bien bitartean, ahots bat, metalezko ahots bat, behin eta berriro oihukatzen diguna zein ordutan den abiatzekoa guk sekula hartuko ez dugun trena — inondik ez iritsi berria dena eta inora ere ez segituan abiatuko dena—. Zorionez, "Nire ibarra guztiz orlegia da" abestiak denbora pasatzen laguntzen dit. Matigotxo, pipak eta erregaliza. Ameba tipia izan arren, zaporeak gogoratzeko gaitasuna daukat oraindik. Batez ere, hiru horienak. Bestalde, pentsatzen ere badakit —denborarik gehiena gauza lizunei buruz pentsatzen badihardut ere—. Zeren guk, amebok, halako elkarte, komunitate bat osatzen baitugu, punta batetik bestera sakabanatuta gaudelarik. "Erradarra" daukagu, nolabait esateko. Teologoen arabera, geu izan gaitezke denek irrika biziz bilatzen duten Jainkoa. Jainko bat zein zatikiz zatiki ulertuta edota hartuta, unibertso osoa osatzeko gai izango litzatekeen. Edo, behintzat, unibertsoetariko bat (unibertso asko baitaude —norberak irudika dezakeen adina—). Espazioak, kosmosak eta unibertsoak, oro har, txit ugariak dira dira.

Halako batean, oso garbi ikusi nuen: ez zitzaidan gustatzen ameba mixerablea izatea; ez nuen gogoko neure burua. Beraz, eztena zabaldu (ezten zabalgarria baitaramagu ameba guztiok, baita primitiboenok ere), nire gorputz alderik

delikatuenean sartu eta "plof" egin nuen. Lehertu egin nintzen alegia, nire heltokira iristeko oraindik bost mila bilioi kilometro-argi luze gelditzen zitzaizkidalarik. Ez nuen ezer lortu ordea. Gure Eragileak ihesbide guztiak aldeztetik aurreikusita eta eragotzita baitaizka; halan ba, ia-ia instant berean, berriro ere ameba bilakatuta aurkitu nuen neure burua. Alde bakarra haxe zen: irteeran, lehenengo abiapuntu berean nengoela. Hutsetik hasi beharra neukan osterera ere. Nire buruaz beste egiteko saioak ez zuen ezertarako balio izan. Hortaz, ezin nuen ezer egin; harrapatuta nengoen. Harrapatuta, harrapatuta, harrapatuta...